

Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialaren **Liburu Zuria 2024**



3seuskadi

Hirugarren Sektore Sozialaren
Euskal Behatokia

Observatorio Vasco del
Tercer Sector Social



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

ONGIZATE, GAZTERIA ETA
ERRONKA DEMOGRAFIKOAREN SAILA
DEPARTAMENTO DE BIENESTAR,
JUVENTUD Y RETO DEMOGRÁFICO

Aurkibidea

1. Ezagutu beharreko hitzak.....	3. orrialdea
2. Sarrera	7. orrialdea
3. Txostena egiteko lan-metodologia	9. orrialdea
4. Kapituluak	10. orrialdea
1. kapitulu a: Datu garrantzitsuak.....	10. orrialdea
2. kapitulu a: Jarduera	16. orrialdea
3. kapitulu a: Pertsonak.....	18. orrialdea
4. kapitulu a: Baliabide ekonomikoak.....	21. orrialdea
5. kapitulu a: Kudeaketa eta komunikazioa	23. orrialdea
6. kapitulu a: Kanpo- harremanak.....	27. orrialdea
7. kapitulu a: Barne-harremanak eta sektorearen egoera	29. orrialdea

1. Ezagutu beharreko hitzak

Dokumentu hau hobeto ulertzeko,
jakin beharreko hitzak daudela uste dugu.
Atal honetan, hobeto ulertzen lagunduko dizuten
termino batzuk definitzen dira.

Administrazio publikoak:

Administrazio publikoa gobernuarentzat lan egiten duten pertsonen
eta bulegoen taldea da.
Gobernua da herrialde baten arduraduna.
Administrazioak gobernuaren erabakiak gauzatzen ditu.
Erabaki horiek beti legeak errespetatuz egiten dira.

Boluntarioak:

Boluntarioak beste pertsona batzuei
borondatez laguntzen dieten pertsonak dira.
Ez dute dirurik irabazten.
Boluntarioek bere denboraren zati bat
ematea erabakitzen dute besteei laguntzeko.
Ez da lan bat, ekintza solidarioa baizik.

Elkartea:

Elkarte bat helburu komun bat lortzeko boluntarioki
elkartzen den pertsona-talde bat da.
Helburu hori garrantzitsua izan daiteke
elkarteko bazkideentzat edo gizarte osoarentzat.

Modu **demokratikoan** funtzionatzen dute
eta ez dute irabazi-asmorik.
Hau da, ez du dirua irabazi nahi.
Dirua irabazten bada,
diru hori elkarteari eman behar zaio.

Demokratikoa:

Modu demokratikoan
jokatzea da pertsona talde batek erabaki
garrantzitsuak elkarrekin hartzen
dituenean, eta ez pertsona batek
bakarrik.

Erakundeak:

Erakunde bat helburu komun bat lortzeko
elkartzen den pertsona-talde bat da.
Erakundeek talde asko biltzen dituzte,
hala nola elkarteak eta fundazioak, besteak beste.
Elkarteak erakunde mota bat dira.

Finantzaketa pribatua:

Finantzaketa pribatua erakunde batek,
proiektu edo pertsona batek
governua ez diren iturrietatik
lortzen duen dirua da.
Diru hori honakoetatik etor daiteke:

- Pertsonen dohaintzak.
- Enpresen laguntzak.
- Fundazio pribatuen funtsak.

Finantzaketa publikoa:

Gobernuak proiektu baterako ematen duen dirua da.

Herritarrek ordaintzen dituzten zergetatik dator diru hori.

Gobernuak erabiltzen du diru hori pertsoneri edo enpresei laguntzeko.

Adibidez:

- Eskola berri baten eraikuntza ordaintzeko.
- Erakunde bati jarduerak egiten laguntzeko.
- Enpresa bati produktu berri bat sortzeko dirua ematea.

Fundazioa:

Fundazioa irabazi-asmorik gabeko erakundea da.

Gizarteari laguntzeko erabiltzen den diru-dohaintza batekin sortzen da.

Fundazioak sortu zuen pertsonak erabaki zuenaren

eta estatutuek diotenaren arabera funtzionatzen du.

Estatutuak fundazio batean jarraitzen diren arauak dira.

Bere helburua pertsona taldeei laguntzea da.

Kooperatibak:

Kooperatiba bat enpresa berezi bat da.

Kooperatiba bat osatzen duten pertsoneri bazkide deitzen zaie.

Pertsona horiek elkartu egiten dira elkarrekin lan egiteko

eta behar dutena lortzeko.

Kooperatiba batean, bazkide guztiak dira enpresaren jabe.

Pertsona guztiek batera hartzen dituzte erabakiak.

Langileak:

Langileak enpresa edo erakunde batentzat

lan egiten duten pertsonak dira.

Langileek bere lanagatik dirua jasotzen dute.

Sektorea:

Sektorea enpresa-talde bat da.

Enpresa talde hauek antzeko ekintzak egiten dituzte.

Egiten duten jardueraren arabera taldekatzen dira.

Adibidez:

- Sektore soziala:

Helburu komun batekin

elkartzen diren pertsonen taldea.

Egoera bat hobetu edo beren eskubideak defendatu nahi dituzte.

Adibidez, fundazioak, erakundeak edo kooperatibak besteak beste.

- Elikagaien sektorea:

Janaria ekoizten

eta saltzen duten enpresa guztiak dira.

Adibidez, supermerkatuak eta jatetxeak.

- Osasunaren sektorea:

Ospitaleak, medikuak eta botikak

saltzen dituzten enpresak dira.

2. Sarrera

Dokumentu hau Euskadiko Hirugarren **Sektore** Sozialari buruzko txostenaren laburpena da.
Dokumentu hau **irakurketa errazera** egokituta dago.

Zer da Hirugarren Sektore Soziala?

Hirugarren Sektore Soziala dirua irabazi gabe gizarteari laguntzeko lan egiten duten **erakundeek** osatzen dute. Erakunde horiek ez dira gobernuarenak, ezta enpresa pribatuenak ere. Erakunde horien helburu nagusia besteen ongizatea lortzea da, eta ez beren onura ekonomikoa. Erakunde horiek izan daitezke:

- **Fundazioak.**
- **Elkarteak.**
- **Kooperatibak**, besteak beste.

Erakunde horiek nolakoak izan behar duten lege bat dago.
Lege hau [6/2016 Legea da](#).

*Lege honetarako esteka ez dago Irakurketa Errazean.



Logo honek dokumentu bat, web orri bat edo liburu bat irakurketa errazean dagoela esan nahi du.

Zer da Hirugarren Sektorearen Liburu Zuria?

Liburu Zuriak Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialako erakundeek zer egiten duten azaltzen du.

Txosten hori Hirugarren Sektore Sozialaren Euskal Behatokiak egiten du.

Txosten hori 4 urtean behin eguneratzen da.

Liburu Zuriko informazioa

Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialaren errealitatea ezagutzeko interesa duen edonork kontsulta dezake.

Zertarako balio du Liburu Zuriak?

Liburu Zuriaren bidez,

Euskadiko gizarteak sektore horri buruzko datu garrantzitsuak jakin ditzake.

Adibidez, datu hauek:

- Egiten duten jarduera.
- Erabiltzen dituzten baliabideak.
- Ekarpen soziala, besteak beste.

Zeintzuk dira Liburu Zuriaren helburuak?

Hauek dira Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialaren

Liburu Zuriaren helburuak:

- Zenbat erakunde dauden eta zer egiten duten jakitea.
- Erakunde horietan lan egiten duten pertsonak ezagutzea.
- Zenbat diru duten jakitea.
- Helburuak ezagutu eta nola hobetu daitezkeen jakitea.

3. Txostena egiteko lan-metodologia

Txosten hau egiteko,
Hirugarren Sektore Sozialaren azterketa egin da.
Txosten honetan datu kuantitatiboak
eta kualitatiboak bildu dira.

Datu kuantitatiboak neurtu
edo zenbatu daitezkeen datuak dira.
Zenbakien arabera adierazten diren datuak dira.

Datu kualitatiboak zerbait nola
edo zer motatakoa den
azaltzen duten datuak dira.

Azterlan honetan 438 erakundek hartu dute parte,
Euskadiko Hirugarren Sektorea osatzen duten
4 mila erakunde baino gehiagotatik.

Azterlana 2023ko maiatzaren 8tik uztailaren 7ra egin da.

1. kapitulua: Datu garrantzitsuak

Euskadin 4 mila erakunde baino gehiago daude
Hirugarren Sektorearen barruan.



Erakunde hauek
45 mila pertsona baino gehiago dituzte lanean.
168 mila **boluntariok** baino gehiagok ere laguntzen dute.



2022an, 2 mila milioi euro baino gehiago erabili zituzten.



Oharra: Hirugarren Sektorea asko hazi da
azken urteotan.

Datuak lurralde historikoen arabera.


Bizkaiak ditu erakunde gehien.

Guztira, 2 mila erakunde baino gehiago ditu.

Era berean, langile gehien ditu,

26 mila pertsona baino gehiago ari dira lanean.

94 mila boluntario baino gehiago daude.




Gipuzkoak mila erakunde baino gehiago ditu.

la 13 mila langile eta

48 mila boluntario baino gehiago ditu.



Arabak 600 erakunde baino gehiago ditu.
6 mila langile eta 25 mila boluntario
baino gehiago ditu.




Oharra: Bizkaiak elkarte kopuru handiena duen arren,
gero eta alde gutxiago dago 3 lurraldeen artean.
Arabak eta Gipuzkua gero eta erakunde gehiago dituzte.


Hirugarren sektorearen aldaketa azken urteetan.

Azken 10 urteetan, Euskadiko Hirugarren Sektore Soziala hazi egin da:


- Erakunde gehiago daude.
- Pertsona gehiago daude lanean, boluntarioak zein **langileak**.
- Diru gehiago kudeatzen da.



Grafiko honetan ikus daiteke nola hazi den erakundeen ekonomia 2014 eta 2023 urteen artean. Erreferentzia ekonomikoa milioi euro ingurukoa da.



Grafiko honetan ikus daiteke nola hazi den langileen eta boluntarioen kopurua 2014 eta 2023 urteen artean.




Grafiko honetan ikus daiteke nola hazi den erakunde kopurua 2014 eta 2023 urteen artean.

Erakundeen ezaugarriak.

Erakunde gehienak **elkarteak** dira,
eta soilik ehuneko 6 fundazioak dira.

Erakunde horien erdia, pertsonek
edo haien familiek sortu dituzte.



Grafiko honetan ikus daiteke zenbat erakunde,
fundazio edo beste talde dauden hirugarren sektorearen barruan.

2. Kapitulua: Jarduera

Erakundeek egiten dituzten jarduerak ez dira asko aldatu azken 5 urteetan.

Erakunde gehienek 25 urte baino gehiago daramate lanean. Gaur egun erakunde berriak sortzen dira.

Erakunde horiek gizarte arloan eta gizarte-zerbitzuetan lan egiten dute.

Gizarte arloak pertsonen eskubideak sustatzen ditu, adibidez:

- adineko pertsonak,
- pertsona migranteak
- edo emakumeak.

Gizarte-zerbitzuek zuzeneko laguntza ematen diete pertsona jakin batzuei.

Erakundeek egiten dituzten jarduera nagusiak hauek dira:

- 10 erakundetatik 8k gizarte sentsibilizatzeko lanak egiten dituzte.

- Ordezkatzen duten kolektiboaren eskubideak defendatzen dituzte.
- Gehien eskaintzen dituzten zerbitzuak informazio eta orientazio zerbitzuak dira. Baita hezkuntza eta aisialdikoak ere.

Erakundeak onak dira
pertsonek behar berriak detektatzen,
baina batzuetan zailtasunak dituzte
behar horiei erantzuna emateko.

Erantzun hobe emateko,
baliabide berriak sortu,
malguak izan
eta modu sortzailean pentsatu behar da.

3. Kapitulua: Pertsonak


Soldata duten pertsonak

Erakundeetan ordainsaria duten pertsonak izateak pertsona horiek beren lanaren truke dirua kobratzen dutela esan nahi du.

Erakundeen ehuneko 60k baino gehiagok bere lanaren truke dirua kobratzen duten pertsonak dituzte.


Horrek esan nahi du pertsona horiek beren lana modu profesionalean egiten dutela. Erakundeetan lan egiten duten pertsona gehienak emakumeak dira.

Grafiko honetan erakundeetan lan egiten duten gizonen eta emakumeen ehunekoak ikus ditzakezu.




Erakundeetan gizonak baino
emakume gehiagok lan egin arren,
gizon gehiago dira arduradunak.

Grafiko honetan ikus dezakezu
zenbat gizonek
eta zenbat emakumek
lan egiten duten arduradun bezala.



Pertsona boluntarioak

Erakunde gehienetan
boluntariora oso garrantzitsua da.
Erakundeen ia ehuneko 39an
boluntarioek bakarrik egiten dute lan.
Normalean erakunde batek
10 eta 50 boluntario bitartean izaten ditu.
Boluntario gehienak emakumeak dira.
Grafiko honetan ikus dezakezu
erakundeetako gizon eta emakume boluntarioen ehunekoa.



Normalean boluntarioek noizean behin laguntzen dute jarduera edo lan puntualetan.

Erakunde gehienetan erakundea zuzentzen duten pertsonak boluntarioak dira.

Dirua ematen duten pertsonak

Erakundeen ehuneko 51k erakundeari dirua ematen dioten pertsonak dituzte.

Pertsona horietako gehienek dirua maiztasunez ematen dute.

4. Kapituluia: Baliabide Ekonomikoak

Erakunde gehienak txikiak edo ertainak dira. Horrek esan nahi du erakunde horiek langile gutxi daukatela. Erakunde horiek urtean 300 mila euro baino gutxiago gastatzen dute. Baina erakunde handi batzuek urtean milioi 1 euro baino gehiago gastatzen dute.

Erakundeek 2 modu desberdinetan jasotzen dute dirua:

1. Administrazio publikoetatik:

Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritza dira erakundeei diru gehien ematen dieten **administrazio publikoak**.

Erakundeek ehuneko 51 inguru jasotzen dute diru publikotik.

Hau da, erakundeek jasotzen duten diruaren erdia baino apur bat gehiago administrazio publikoetatik dator.

2. Erakunde pribatuetatik:

Hau da, enpresak, pertsonak

edo beste erakunde pribatu batzuk.

Erakundeetako bazkideek ordaintzen duten dirua

erakundeen diru-iturri inportanteena da.

Erakundeek ehuneko 49 inguru jasotzen dute diru pribatutik.

Hau da, erakundeek jasotzen duten diruaren ia erdia

erakunde pribatuetatik dator.

5. Kapituluia: Kudeaketa eta komunikazioa

Kudeaketa



Kudeaketa erakundea

antolatzea esan nahi du.

Erakunde baten kudeaketa erakundeak funtzionatzeko eta bere helburuak lortzeko egiten diren jarduerak dira.

Horretarako, hau egin behar dute:

- Planifikatzea: Zer egingo den erabakitzea.
- Antolatzea: Lana banatzea.
- Zuzentzea: Pertsonak gidatzea beren lana egiteko.
- Kontrolatzea: Gauzak planifikatu bezala egiten diren ikustea.

Erakundeek hobetu dituzte

kudeaketarako erabiltzen dituzten **tresnak**.

Kudeaketa-tresnak:

Kudeaketa-tresnak proiektu baten lana eta zereginak antolatzeko, planifikatzeko eta antolatzeko laguntzak dira. Kudeaketa-tresnei esker, errazagoa da helburua lortzea.

Gero eta erakunde gehiagok erabiltzen dituzte sistemak beren helburuetara heltzen diren jakiteko eta laneko arriskuak prebenitzeko.

Kudeaketarako tresnen adibideak hauek dira:

- **Kode etikoa.**
- Emaizak ebaluatzen sistema.
- Gizon eta emakumeen arteko berdintasun plana.
- Laneko eta sexu-jazarpenaren aurkako protokoloa.

Kode etikoa:

Kode etikoak erakunde baten arauak eta balioak azaltzen ditu.

- Ez diskriminatzeko protokoloa edo antzekoa.
- Gardentasun plana.
- **Auditoria** edo balantze soziala.
- Euskara-plana.
- Estrategia digitalerako plana.

Auditoria:

Erakunde baten lan edo prozesu bat modu egokian eta arauetara jarraituz egiten dela egiaztatzeko egiten den azterketa edo berrikuspena da.

Datuak:

Erakundeen ehuneko 17k baino gehiagok auditoriak pasatzen dituzte.

Erakundeen ehuneko 7k baino gehiagok ez ditu auditoriak pasatzen, baina haiekin lotutako ekintzak egiten dituzte.

4 erakundetik 1ek baino gehiagok euskara garatzeko jarduerak egiten dituzte. Erakundeen ehuneko 10ek baino gehiagok euskara-plana dute.

Plan digitalak ia ez daude erakundeetan. 5 erakundetik 1ek horrekin lotutako ekintzak antolatzen ditu.

Komunikazioa



Erakunde baten komunikazioa
hauek partekatzea da:

- informazioa,
- ideiak,
- eta erakundea osatzen duten
pertsona guztien arteko erabakiak.

Erakundeek komunikazio-kanpainak egiten dituzte
beren informazioa partekatzeko
erakundearen barruan eta erakundearen kanpoan.
Adibidez:

- Sentsibilizazio-kanpainak.
- Baliabideak biltzeko kanpainak.
- Gardentasun-kanpainak.

Datuak:


Erakunde gehienek
sentsibilizazio-kanpainak
eta baliabideak biltzeko kanpainak
egiten dituzte.

Normalean, erakunde batek
sentsibilizazio kanpaina
edo dirua biltzeko kanpaina egiten duenean
beste erakunde batzuekin biltzen da.

10 erakundetik 6k

Agenda 2030ekin lotura duen
prozesuren bat jarri du martxan.

Agenda 2030 garapen jasangarri
eta ingurumenaren zaintza helburu bezala dituen
proiektua da.



Erakunde gehienak gardenak izaten
eta beren kontuei buruzko informazioa ematen
saiatzen dira.

Beren misioa, ikuspegia
eta balioen berri ere ematen dute.


6. kapitulua: Kanpo-harremanak

Hirugarren sektoreko erakundeak
administrazio publikoekin
eta erakunde pribatuekin
elkarlanean aritzen dira.

Hirugarren Sektoreko osatzen duten erakundeek
sentitzen dute administrazio edo erakunde
pribatu batzuen laguntza handiagoa jasotzen dutela.

Hirugarren Sektoreko erakunde gehienek
administrazio publiko edo entitate pribatuek
laguntza handiagoa ematen dietela uste dute.
Hurrengo zerrendan, administrazio eta entitate horiek
ordenatuta agertzen dira.

1. Gizarte-mugimenduak.
2. Foru aldundiak.
3. Udalak.
4. Eusko Jaurlaritza.
5. Eliza.
6. Banku-fundazioak.
7. Unibertsitateak.
8. Enpresak.
9. Estatuko Administrazio Orokorra.
10. Sindikatuak.
11. Enpresa-elkarteak.
12. Alderdi politikoak.



**Grafika honetan ikus dezakezu
administrazio edo erakunde bakoitzeko
erakundeek jasotzen duten babesaren ehunekoa.**

7. kapitulua: Barne-harremanak eta sektorearen egoera

Erakunde gehienek sektoreko beste erakunde batzuekin harremanak dituzte. Erakundeentzat ezinbestekoa da taldean lan egitea.

Hirugarren sektoreko erakundeentzako garrantzitsua da hurrengo arloetan lanean jarraitzea:

- Nortasuna.
- Jarduera.
- Pertsonak.
- Baliabide ekonomikoak.
- Kudeaketa.
- Lankidetzak.

Euskadiko Hirugarren Sektorearen erronkak:

Hauek dira gizarte-erakundeek beren lana hobetzeko proposatu dituzten helburuak. Guztira 12 helburu proposatzen dira, 6 arlotan banatuta:

1. Nortasuna:

- **1. Helburua:** Balioak eta lan egiteko modua mantentzea.
- **2. Helburua:** Hirugarren Sektoreak Euskadiko ongizate sozial eta ekonomikorako egiten duen lanaren garrantzia nabarmentzea.

2. Jarduerak:

- **3. Helburua:** Pertsonen behar berrietara egokitzea eta laguntzeko modu berriak bilatzea.
- **4. Helburua:** Kritikoagoak izatea eta gizartean eragin handiagoa izatea.

3. Pertsonak:

- **5. Helburua:** Boluntariora indartzea eta jendeak parte hartzeko modu berriak eskaintzea.
- **6. Helburua:** Langile onak lortzea eta daudenak mantentzea.

4. Baliabide ekonomikoak:

- **7. Helburua:** Sektorerako dirua lortzea eta diru hori denboran egonkorra dela ziurtatzea, zerbitzuei eta ekipoei egonkortasuna emateko.

5. Kudeaketa:

- **8. Helburua:** Kudeaketa eta lan egiteko modua hobetzea, gardenagoak izanik.
- **9. Helburua:** Ikaskuntza sustatzea, berritzaileagoak eta iraunkorragoak izateko eta gizartean eragin handiagoa lortzeko.

6. Lankidetzak:

- **10. Helburua:** Beste gizarte-talde batzuekin lanean jarraitzea.
- **11. Helburua:** Erakundeek beren artean lankidetzan jardun dezaten sustatzea.
- **12. Helburua:** Hirugarren Sektorearen lehentasunekin plan bat sortzea aintzatespena bilatzeko.

Laburbilduz, hirugarren sektoreak hau izan nahi du:

- Ikusgarriagoa,
- hobeto lan egin,
- bere jendea zaintzea,
- baliabide gehiago lortzea
- bat egin indar gehiago izateko
- pertsonen behar berrietara egokitzea,
hobeto laguntzeko,
- erakundeak zaintzea,
etorkizunean ere ondo funtziona dezaten,
- langile onak lortu eta daudenak mantentzea.



Hirugarren Sektorerako Sozialaren
Eusko Jaurlaritza

Observatorio Vasco del
Tercer Sector Social



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

ONGIZATE, GAZTERIA ETA
ERRONKA DEMOGRAFIKOAREN SAILA

DEPARTAMENTO DE BIENESTAR,
JUVENTUD Y RETO DEMOGRÁFICO